

Igeriketa ♦ Stev Theloke alemaniarrek 50 metro bizkar estiloko errekorra ondu zuen atzo jokaturiko finalean

Europako beste bi errekor

Inge de Bruijn holandarrak 100 metro tximeleta estiloko errekorra ondu du

Agentziak / Istanbul

FINALAK izan ohi dira markak hausteko saio aporose-nak, bertan kirolariak dena ematen baitu errearen bila, baina atzo Inge de Bruijn holandarrak nahiko motibazio aurkitu zuen sailkapen saioan 100 metro tximeleta estiloko Europako errekorra ontzeko. De Bruijnek 58:92ko denbora egin zuen. Aurreko marka Johanna Sjoberg suediarrek egin zuen hilaren 1ean. Seulgo Joko Olinpikoe-tan Kristin Otto alemaniarra 59 segundoko mugatik jaitsi zenetik, bi emakume hauek izan dira balentria hori lortu duten bakarrak.

Stev Theloke alemaniarrek 50 metro bizkar estiloko finalean ondu zuen Europako marka: 25:66. Bigarren, Thomas Rupprath izan zen, hau ere alemaniarra.

200 metroetako finaletan frantziarrak izan ziren nagusi. Tximeleta estiloan Franck Esposito izan zen azkarrena, Denis Silantiev ukrainarra eta Anatoli Pokiakov errusiarraren aurretik. Espositok



STATON R. WINTER / EPA

Stev Theloke alemaniarra izan zen azkarrena 50 metro bizkar estiloko finalean, eta Europako errekorra ondu zuen.

1:57:20ko denbora egin zuen. Beste urrea Bular estiloan lortu zuen Frantziak, Stephan Perroten bitartez. Perrotek 2:12:46 egin zuen, Dimitri Komornikov eta Johann Bernarden aurretik.

Emakumezkoetan, Hannah Stockbauer izan zen azkarrena 800 metro libreetan, 8:33:79ko denbora egin ez. Zilarra Kristen Vlieg-huisek eskuratu zuen, eta brontzea Jana Henke.

200 metro estiloetako finalean Jana Klotchkova ukrainarrak irabazi zuen, Beatrice Caslaru errumaniarra eta Sabine Klinez alemaniarren aurretik. Segundo bateko aldearekin nagusitu zen.

Atzoko finalak

800 metro libreak (Ema)

1. Hannah Stockbauer 8:33:79
2. Kirsten Vlieg-huis 8:35:19
3. Jana Henke 8:37:06
4. Flavia Rigamonti 8:37:14
5. Carla Geurts 8:40:59

200 metro estiloak (Ema)

1. J. Klotchkova 2:14:02
2. B. Caslaru 2:15:12
3. Sabine Klenz 2:16:95
4. Annika Mehlhorn 2:17:82
5. Lourdes Becerra 2:19:40

50 metro bizkarka (Giz)

1. Stev Theloke 25:66
2. Thomas Rupprath 25:94
3. Mariusz Siembida 26:07
4. Darius Grigalionis 26:15
5. David Ortega 26:17

200 metro tximeletak (Giz)

1. Frank Esposito 1:57:20
2. Denis Silantiev 1:57:29
3. Anatoli Pokiakov 1:57:89
4. James Hickman 1:58:72

200 metro bularka (Giz)

1. Stephan Perrot 2:12:46
2. Dimitri Komornikov 2:12:88
3. Johann Bernard 2:12:96
4. Andreo Ivanov 2:14:33

Errugbia ♦ Lapurtarren lehen lagunarteko partida da

Miarritze-Agen Koparen atarian

Koldo Alduntzin / Donostia

MIARRITZEK abuztuaren 13an ekingo dio ofizialki 99-2000 sasoiari Frantziako Kopako lehen jardunaldiarekin. Colomiers hartuko du Aguilera (20:30). Ligari, berriz, abuztuaren 21ean helduko dio Nimesen jokatu. Uztailaren 5ean hasi zen entrenatzen baloiarekin, eta gaur jokatu du lehen partida gogorra Hossegorren (Landak). Agen izango du kontrario; Liga Xapelgoan miarritzarren multzo berean ariko da.

Miarritzeko jokalariek guztiak aritu dira entrenatzen, Bolo-Bolo Fijikoa izan ezik. Hegala oraindik ez da heldu Miarritzera. Bestetik, Bixente Artola eta Philippe Bidabe ere ez dira Hossegorren izango, 21 urtez azpiko Munduko

Kopan aritu berriak baitira.

Agen joan den astelehenean hasi zen entrenatzen. Aitzinean lehen lerro osoa falta zaio. Iazkoa trantsizioko sasoiaren izan zen, eta aurtengorari begira, aitzin-multzoa indartu du. Mugimenduko jokoa egiteko asmoa dute agendarrek. 18:00etan hasiko da norgehiagoka.

Baiona Akizeren aurka

Elite 2ko Liga irailaren 16an hasiko da, eta Baionak Tyros-eren kontra jokatu du. Aurrez Kopari ekingo dio. Baionesek ere hilabete osoa eman dute entrenatzen, eta gaur Akizeren kontra ariko dira 18:00etan, Habasen (Landak). Etxeto eta Astarloa ez dira ariko, baina bai Altuna, Sivy eta Durquety.